

| 2025 irakasle oposizioak |                                     |            |
|--------------------------|-------------------------------------|------------|
| Kidegoa edo lanpostua:   | Espezialitatea:                     | Hizkuntza: |
| Bigarren Hezkuntza       | 590 Euskal Hizkuntza eta Literatura | Euskara    |
| PROBA PRAKTIKOA          |                                     |            |

Plaia hartako gunerik baztertuen, ezkutatuen, itsaso zabalari hurbilenara iritxi zirenean ere, haurrak zituen lehenik udako jantzi arinak kendu; eta gorputz zuria biluzik erakutsi zionean, bere ahultasunean hain hukigarria, bere ahaltasunean hain jauretsia, gizonak areago ez zekien etsipenez negar-garraiaska hasi, ala zorionaren onaz belaunikatu eta Izatea benedikatu behar zuenetz... Baina Theresa haiduru zen — orain, lehengo aldikotz beharbada, den mendren lotsarik gabe haren soari eta haren irritsari eskainirik izanaz... Theresa haiduru zen, begi nabarrak samurtasunez beteak hari buruz jasorik, bera ere desbeztitzen zelarik —haur-beldurritz ez— ironiarik agertu gabe haren gizontasun anker eta arrontarengatik. Itsasoak eta zeruak esmaltezko zola bat egiten zioten neskatoaren gorputzeko urrearari. Soa bazkatzen eta asetzen zuen aita besoetakoak hainbat edertasunez, hainbat urrezkotasunez... Ez zen deliberatzen urrats bakar batez ere haren gana hurbiltzera, eta horrela egonen zen munduaren azkenearaino... edo itsaso zabala bere oguz haien harrapatzera etorriko zen arteraino... Bere elkar-jaurespideko azkenengo eginkizuna egitekoa zen, ordea, ez zuen atzeratzerik! Joan zen haurrarenenganaino, eta berari kontra hartzen zuelarik esaten zion eztiki: «Deusik ez esan. Theresa, beldurrik ez izan... sinbolo bat baizik ez dun, eta gerorako agintza bat... deus ez ezan esan ez pentsa ene kontra min egin behar badaunat, Theresa xiki horri!».

Ba zekien Theresa xikiak... eta gizonak itsasoaren aurrez aurre hartu zuenean, urratzen zuen zauriaren sakonaz eta erratzen zuen suaren garraz ezpainak tinkat eta begiak bustitzen bazitzaizkion ere, haren gorputza oro ikara jartzen zelarik, ez zuen ez intzirina bat, ez hatsbehera bakar bat ere itzurtzera utzi. Aitzitik, biak bateginik uhin marrumakarien aitzinean hor zeudelarik sekula amaitu behar izan ez balu bezala eretiak, bere irribarre gozo liluratua gorde zuenaita besoetakoak lagatu ez zuen artean. Orduantxe bakarrik erori zen ondartzat epelean, ezindurik; eta gizonak, haren ondoan belaunikatuta, urraduraren mina musuka sendatu nahi ziolarik, berriz eta berriz berresaten zuen mozkorturik, eroturik: «Orain elkarrekin izanen gaitun beti, elkarrentzat elkarrekin beti!», bere bihotzeko egarria haurraren odol berriaz hautsi arterainokoan...

**Azal ezazu zer ekarpen egin dion obra horrek euskal literaturaren historiari, pasartearen ezaugarri formal nahiz edukizkoetatik abiatuz: testuingurua; diskurtsoa (hizkuntza, literatura baliabideak, narratzailea edota pertsonaiak); egitura; edukia (gaia edo muina); ondorioak (obraren garrantzia, gaurkotasunarekiko lotura); aplikazio didaktikoak (autorea).**